

KONTROL MOZIOA

27 poligonoko Torrua Zahar AU MA 02 eremuko 16 partzela dela eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2026ko otsailaren 16ean Lurralde Garapen eta Antolamendurako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Orain gutxi 27 Industrialdeko Jabeen eta Erabiltzaileen Elkartearekin egoteko aukera izan dugu eta industrialde bera bisitatzeko aukera.

Bertan egonik, arreta handia ematen du Torrua Zahar AU MA 02 eremuko 16 partzelak egun duen egoera. Partzela huts hau zabortege bat bilakatu da.

Partzela huts honetan ematen den arazoa, ez da berria. Urteak dira 27 Industrialdeko Jabeen eta Erabiltzaileen Elkarteak berak partzela garbitzea eskatzen duela, baina baita partzelari erabilera zehatz bat ematea ere.

EH Bildutik ere partzela honen egoera salatu izan dugu, hain zuzen ere, 2024eko urtarrilean, partzela honetan EH Bildutik plan berezi bat egitea eskatu genuen mozio baten bidez, bestelako erabilera bat emateko. Baina Udal Gobernuak mozio horren aurka bozkatu zuen.

Bada 2 urte beranduago, partzela horren egoera okertu egin da. Zaborrez bete da eta zabortege ilegala bihurtu da. Ugariak dira hona gerturatzen direnak haien hondakinak botatzeko. Bertara gerturatzea baino ez da egin behar, egun dagoen egoera kezagarria ikusteko. Hondakin-mota ugari ikus dezakegu bertan, usaina, arratoiak...

Jada, osasun-arazo bihurtu da ere inguruko lantokientzat eta zerbitzuentzat.

Bai bertako enpresek eta bai 27 Industrialdeko Jabeen eta Erabiltzaileen Elkarteak partzela hori garbitzeko eskaera egin izan du Udalean maiz, baina orain arte, ez du inongo erantzunik jaso.

Egoera ikusiri, Arartekora jotzeko urratsa eman zuten. Eta horren ondorioz, Arartekoak 27 poligonoko Torrua Zahar AU MA 02 eremuko 16 partzelari buruzko informazioa eskatu dio Donostiako Udalari.

Honen guztiaren aurrean, arazoaren berri eman genion Udal Gobernuari. Udal Gobernuak, haren zinegotzi arduradunaren bidez jakinarazi zigun, aipatutako partzela lehenbailehen garbituko zela eta hesitu egingo zela.

Hesiari dagokionez, inguru guztia ondo itxia dagoela ziurtatzea garrantzitsua deritzogu, azken urteetan partzela honek izan duen bilakaera ikusirik.

Hala ere, egoeraren larritasuna ikusirik, partzelak egoera berdinean jarraitzen du, zaborrez betea.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, 27 industrialdeko Torrua Zahar AU MA 02 eremuko 16 partzela lehenbailehen garbitu dezala eta behar diren neurriak har ditzala eremua ixteko eta berriro bertan hondakinik botako ez dela ziurtatzeko, partzelaren erabilera zehaztu eta onartu arte.

Donostian, 2026ko otsailaren 20ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia